



POLITIKA OROKORRARI BURUZKO EZTABAIDA

DEBATE DE POLÍTICA GENERAL

2025-09-18 Vitoria-Gasteiz 18-09-2025

POLITIKA OROKORRARI BURUZKO EZTABAIDA

DEBATE DE POLÍTICA GENERAL

2025-09-18-Vitoria-Gasteiz 18-09-2025

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Legebiltzarburu andrea, legebiltzarkideok; Sailburuok; Erakundeetako arduradunok, gizartearen ordezkariok, jaun andreok, egun on guztioi!

Osoko Bilkura hau Gazan ikusten ari garen genozidioa salatuz hasiko dut.

Asaldatuta, nekatuta eta nazkatuta gaude. Biolentzia honek samina, amorrua eta ezintasuna eragiten digu.

Lehen egunetik gure posizioa argi erakutsi dugu:

Abenduan, Renne Cassin saria eman genion Palestinako Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentziari, UNRWari. Martxoan, Ellacuria saria jaso zuten.

Irailean Adierazpen Instituzionala onartu genuen, hau nabarmenduz: “Irmoki gaitzesten ditugu gosea gerra-metodo gisa erabiltzea, laguntza humanitarioa ukatzea edo oztopatzea eta Palestinako biztanleak lekuz aldatzera behartzea”.

Zoritxarrez, egoera hobetu ordeztu, okertu da.

Horregatik, gaur, Netanyahu eta bere gobernuari ozen esaten diogu: **ASKI DA!**

Balio dezala minutu bateko isiluneak hildakoak oroitzeko eta Palestinako herriari gure elkartasuna adierazteko. Zure baimenarekin, noski, Legebiltzarburua.

Politika Orokorreko Bilkurari hasiera ematen diogu, egun osoko eztabaida irekiari atea zabalduz.

Ondo ezaguna da euskaldunok dugun ohitura politikaz ordu luzez hitz egiteko. Edo, hobeto esanda, eztabaidatzeko.

Osoko Bilkura honek ohitura hori ezin hobeto ordezkatzeko du.

Legebiltzar honetan, gure betebeharra da altuera erakustea. Joko arauak betetzea. Beste guztiaren gainetik elkarrekiko errespetua izatea, inolako marra gorriarik gainditu gabe.

Gure egitekoa da elkarri zintzo entzutea, eta zintzotasun berarekin ideia eta argudioekin eztabaidatzea.

Gure esku dago hori egitea. Gaur eta Legebiltzar honetara etortzen garen egun bakoitzean.

Herritarrek eskatzen digute eta hori zor diegu.

Eguneko lanak errazte aldera, nire lehen interbentzioaren egitura azalduko dut, atalez atal:

- Lehena. Mundua, gaur: aro aldaketa baten lekuko gara.

- Bigarrena. Euskadi Herri aurreratu baten arazo eta erronken aurrean.
- Hirugarrena. Ongizate-Estatua eta zer den benetan 'ongi izatea'.
- Laugarrena. Ziurgabetasun garai honi ekintzen bitartez erantzuna ematen dion Gobernu.
- Bostgarrena. Euskadi eta Estatu espainiarraren arteko harremanak, eta
- Azkenik, seigarrena. Herri bezala gure etorkizuna irabaztea.

Nire hitzaldia bukatutakoan, gai hauetaz edo mahai gainean jartzen dituzuen guztien gainean hitz egiteko aukera izango dugu.

Egin dezagun elkarri entzunez eta aurretiazko gidoiak berridatziz.

Permítanme recuperar mis palabras del Pleno de Investidura del 20 de junio del pasado año.

Dije así: "Es imprescindible tomar conciencia del momento histórico que vivimos. Identificar y entender los cambios que se están produciendo en el mundo.

En el escenario global se están sucediendo al mismo tiempo varias crisis, transformaciones o revoluciones que afectan a todos los ámbitos de la realidad y de nuestra vida".

Y añadí: "en términos históricos, todo parece indicar que asistimos al nacimiento de una nueva era, más compleja e incierta".

Han transcurrido 15 meses. Creo que me quedé corto. Muy corto.

Seguramente, aquel día, ninguno de los presentes, entre quienes me incluyo, éramos conscientes de la espiral de incertidumbre a la que nos íbamos a ver sometidos.

El cambio de era no estaba en fase de nacimiento, sino en fase de aceleración.

El mundo se transforma a tal velocidad que normalizamos cuestiones que hace pocos años ni siquiera hubiésemos imaginado.

Olvidamos acontecimientos de enorme transcendencia porque al día siguiente nos despertamos con nuevos que superan los anteriores.

Hoy el número de conflictos armados en el mundo es el más alto desde la Segunda guerra mundial, un desastre natural sucede al siguiente, una crisis de escala global aflora para hacernos olvidar la anterior...

Y, ante todo esto, nos ocurre algo muy humano: nos desorientamos. Nos cuesta diferenciar lo extraordinario porque, sencillamente, todo parece serlo.

Somos testigos de un cambio de era. Lo estamos viviendo aquí y ahora.

Les propongo recordar una serie de imágenes recientes que pasarán a la historia:

- El ejército de Israel bombardea a niños palestinos mientras hacen cola para recibir comida,
- Xi Jinping comparte tribuna con Vladimir Putin y Kim Jong Un en el mayor desfile militar de la historia de China,
- Úrsula von der Leyen, baja del avión cariacontecida tras sufrir un ataque cibernético en el aire y días después drones rusos son derribados sobre suelo polaco,
- Donald Trump exhibe su tabla de aranceles o recibe con todos los honores y una gran alfombra roja a Putin en Alaska,
- Una asesora de Zelenski se lleva las manos a la cabeza al ver a su presidente humillado ante los ojos del mundo en el Despacho Oval, o

- Toda una península se ve paralizada por un apagón eléctrico sin precedentes.

Son las imágenes de una nueva era. La era de la inestabilidad y la incertidumbre que nos está tocando vivir.

Una era de debilitamiento del multilateralismo y del orden internacional construido tras la Segunda Guerra Mundial, incluido el orden económico diseñado en Breton Woods.

Ante esta realidad, debemos establecer hacia dónde queremos ir como País y jugar la partida de la Euskadi global. Porque para garantizar nuestro futuro como Pueblo, debemos tomar consciencia de que la agenda internacional es parte sustancial y sustantiva de la agenda vasca.

Ello nos obliga a gestionar la nueva realidad global, comprender sus reglas, tener claro nuestro propósito, sumar fuerzas y tomar las decisiones oportunas.

Europa es nuestro campamento base. El lugar desde el que miramos al mundo. Ahora más que nunca.

Compartimos y defendemos sus valores fundacionales: democracia, paz, libertad, tolerancia, seguridad, igualdad y justicia social.

Los mismos valores sobre los que queremos construir el futuro de la nación vasca.

Sin embargo, vemos una Europa amenazada por todos los flancos, atezada y a veces impotente ante los ataques que sufre:

- La guerra en Ucrania pone de manifiesto las pretensiones de influencia de Rusia en Europa. Hoy volvemos a condenar esta invasión y nos solidarizamos nuevamente con el Pueblo Ucraniano que está sufriendo una violencia injusta y continuada.

- Las políticas de Trump demuestran que Estados Unidos no es un aliado incondicional. Está jugando con Europa para sus propios intereses,

- China, de momento, sale ganando en la disputa "Estados Unidos contra Europa" y su competencia e influencia nos debilita como continente,

- África ejerce una gran presión migratoria sobre Europa, o

- La inestabilidad en Oriente Medio añade más incertidumbre.

En definitiva, Europa está compitiendo contra fuerzas muy poderosas y neoimperialistas que no dudan en tratar de convertirnos en una sucursal secundaria a su servicio.

El problema es que el peligro también acecha desde el interior.

Asistimos a una batalla contracultural. El auge de los populismos y los extremismos es una realidad.

Estos movimientos tienen en su razón de ser combatir, dividir y destruir el proyecto de integración europeo. Para ello no dudan en polarizar y tensionar a la sociedad.

Tampoco dudan en imponer su visión ideológica, de claros tintes reaccionarios y autoritarios. Una visión sectaria y antagónica al ejercicio democrático de la libertad.

El autoritarismo se extiende y los datos de un reciente Estudio de 'YouGov' son inquietantes:

- Solo un 57% de los jóvenes europeos cree que el sistema democrático es la mejor forma de gobierno,

- El 51% respaldó la afirmación de que "la Unión Europea es una buena idea, pero se aplica muy mal", y

- El 40% opina que la Unión Europea no es especialmente democrática.

Todo esto ocurre en una Europa que jamás había vivido tantas décadas de paz y democracia.

Sin embargo, hoy en Europa se cuestionan y atacan los principios democráticos, la libertad y el respeto al diferente.

Printzipio hauen aurkako mugimenduak ez dira besterik gabe sortu. Ondo antolatuta daude, estrategia bati erantzuten diote eta laguntza ekonomikoa jasotzen dute.

Eredugarri bezala aurkezten zaizkigun ereduak ez dira onargarriak.

Ustezko mundu desiragarri horietan, Arkadia zoriontsu horietan, kontrakoa bizi da: demokraziaren, askatasunaren eta errespetuaren kontrako mundua da.

Alerta egon behar dugu. Ondo baino hobeto jakin beharko genukeelako: *“urrutiko intxaurrak hamalau, gerturatu eta lau”*.

En su discurso de la pasada semana, Ursula von der Leyen anunció una serie de medidas para fortalecer el proyecto europeo.

Planteó propuestas en los ámbitos de la seguridad, el plan de vivienda o los instrumentos del fondo de competitividad.

Comparto el objetivo de ganar autonomía estratégica en defensa, energía o industria, pero es necesario algo más, es necesario un nuevo impulso político.

Europa debe ganar autonomía política y marcar el liderazgo ético.

Es fundamental tener una voz propia y única en el concierto mundial.

Es imprescindible modificar el modelo de gobernanza y la regla de unanimidad para contar con una mayor autonomía y rapidez en la toma de decisiones y su ejecución. Y es necesario defender los valores que definen el modelo europeo.

Este es el momento. Se ha acabado el tiempo de tratar de contentar a todos. De tratar de no levantar ampollas. En Europa necesitamos más autonomía estratégica y más autonomía política.

Erreakzionatu behar dugu, ez baitugu ezer ere segurtatuta. Egiari zor, ez dugu inoiz ere segurtatuta izan.

Duela 80 urte, Bigarren Mundu Gerran, milioika lagunek bizitza galdu zuten gaur arte ezagutu dugun bake eta demokrazia garaia eraiki ahal izateko.

Gaurko egunez, 1936an, Teodoro Olarte fusilatu zuten. Arabako Ahalduen Nagusia izan zen eta garaiko Autonomia Estatutuaren Batzordean parte hartu zuen.

Gaurko egunez ere, duela 55 urte, Joseba Elosegik bere buruari su eman zion Donostiako Atano frontoian, harmailatik kantzara bere burua bota aurretik. Franco diktadorearen begien aurrean egin zuen hori.

Elosegik Gernikako bonbardaketa sufritu, gudari gisa borrokatu eta nazien aurkako erresistentzian parte hartu zuen.

Errepresioa eta erbesteria ezagutu zituen. Hori gutxi ez, eta zazpi urte eman zituen kartzelan.

Gure herriaren askatasuna defendatzeko bizitza sakrifikatu zuen belaunaldi baten semea zen.

Belaunaldi horrek benetako “pazientzia estrategikoa” izan zuen Bakea eta Tolerantzia egia bihurtzeko.

Orain guri dagokigu lekukoa hartzea.

Beraiek amestu zutena kolokan dago. Hau da, bakean oinarritutako Europa. Europa oparoa. Europa demokratikoa.

Agirre Lehendakariak "Nouvelles Equipes Internationales"-en parte hartu zuen 1947garren urtean.

Ekimen hura Europar Batasunaren hazia izan zen. Eta gure herria bertan egon zen, aukerez baliatzeko. Ametsa egia bihurtzeko.

80 urte geroago, gauza bera egitea tokatzen zaigu.

Europako kausa, bakearen eta demokraziaren kausa, euskaldunon kausa ere badelako.

Ez naiz katastrofista. Ezta gutxiago ere. Begiak zabalik izan behar ditugu. Analisisian eta estrategian huts egiten badugu, emaitzetan ere huts egingo dugulako.

Euskadin, Europaren sorrerako balioak oinarri hartuta, gure aukerak aurkitzen asmatu behar dugu.

Horretarako sortu genuen Euskadi Globala Estrategia, munduan sortzen diren aukerak baliatzeko eta nazioartekotzea euskal agendaren erdigunean egon dadin.

Aro berri honetan aurrerapauso sakon bat ematea dagokigu: nazioarteko agertokian ere jokatu behar dugu, gure nazioaren tamaina, benetako aukerak eta indarguneak kontutan hartuta.

Eta aurrera goaz:

- Sare berriak sortzen ari gara nazioarteko nodoekin konektatzeko,
- Interes partekatuak ditugun agenteekin aliantza estrategikoak indartzen ari gara,
- Espazio erakargarriak sortuz, gure herrira talentua erakartzeko anbizioa dugu,
- Gure enpresa-ekosistema globalki konektatuta egoteko, nazioarteko merkatuan aukera berriak etengabe aztertzen ari gara, eta
- Estrategia berritua hedatzen ari gara, euskal diaspora aktibo erabakigarria izan dadin.

Nazioarteko bide hau ezin dugu bakarrik egin. Ondo aukeratutako aliatuak ezinbestekoak ditugu. Horregatik, garbi dugu noren alboan egon nahi eta behar dugun: gure balioak, eta Europa eta mundua ikusteko era partekatzen dutenen alboan.

Gure herriaren kausarekin bat datozen herriak behar eta nahi ditugu bidelagun.

Puntu honetan, parentesi bat: bi euskal herritarrek urtebete daramate Venezuelan atxilotuta. Legitimazio demokratikorik ez duen erregimen autoritario honek oinarritzko eskubideak eta askatasuna ukatu dizkie.

Horren aurrean, giza eskubideak, justizia eta demokrazia beste guztiaren gainetik errespetatzea eskatzen dugu.

Hauk dira herrialde aurreratu eta demokratiko baten oinarritzko balioak.

Lo cierto es que somos un País avanzado y democrático:

- Estamos creciendo por encima del 2% del PIB y creando empleo neto.
- Por primera vez en la historia tenemos más de un millón de personas trabajando y cotizando.
- La industria y sus servicios avanzados representan el 42,3% de nuestra actividad y son el motor de la economía vasca,
- Hemos asentado unas políticas de igualdad pioneras desde la creación de Emakunde,

- Hemos alcanzado la convergencia con Europa en investigación y desarrollo,
- Nos encontramos por encima de la media europea en jóvenes con estudios superiores y el modelo vasco de Formación Profesional tiene un alto reconocimiento internacional.

La cohesión social es también un activo en nuestro País:

- El Índice GINI demuestra que el nivel de desigualdad en Euskadi está por debajo de la media europea, y
- Lo mismo cabe decir de los índices de pobreza y exclusión.

Todo esto no es casualidad.

La cohesión social tiene su base en la estabilidad y la apuesta continuada de las políticas públicas:

- Hoy en Salud invertimos 3.775 euros por persona, más que los 3.685 de la media europea.
- Destinamos a Educación el 5,35% del PIB, la media en Europa es del 4,67%.
- Invertimos en protección social 10.570 euros por persona, por encima de los 10.050 de la media europea.

Crecimiento y bienestar son fruto de la continuidad de un modelo de colaboración institucional y comunitario que se ha ido actualizando y fortaleciendo desde la recuperación del Autogobierno.

En Euskadi, la guerra y los 40 años de dictadura conllevaron un retraso histórico en el despliegue del modelo de bienestar.

Desde la aprobación del Estatuto en 1979, las generaciones que nos precedieron impulsaron la institucionalización del País y la recuperación del Concierto Económico.

Lo hicieron a pesar del terrorismo ejercido por ETA y de un entorno político que trató de entorpecer todo desarrollo.

Estas generaciones con enorme visión fueron capaces de superar las desventajas y obstáculos. Lograron levantar un País en ruinas y ponerlo al nivel de los más punteros de Europa.

Lo hicieron sin miedo a innovar, desplegando políticas públicas pioneras como los parques tecnológicos, los clúster, la renta de garantía de ingresos o la Ley Vasca contra la Pobreza.

Lo hicieron defendiendo la industria y la política industrial como motor económico del País.

Defendiendo los Derechos y la libertad de nuestro Pueblo, plantando cara con firmeza desde la ética y la democracia en la defensa inequívoca de los Derechos Humanos, y poniendo en el centro lo que nos une por encima de las diferencias.

Cumplieron con acierto su responsabilidad y estuvieron a la altura que les exigía el momento.

A las generaciones que nos han precedido, y a quienes han liderado este País, les debemos la solidez de las instituciones, las estructuras de gobierno y las herramientas con que contamos para seguir creciendo en prosperidad y bienestar, para seguir creciendo como País.

La acción institucional es imprescindible, pero la virtud de este modelo también es la incorporación del activo que supone la aportación de una comunidad viva, dinámica y solidaria a la construcción social, cultural y nacional de Euskadi.

Hoy podemos decir con orgullo que vivimos en un entorno estable, en un País moderno y que, por fortuna, hacemos frente a problemas y retos similares a los que tienen los países más avanzados del mundo.

Pero el éxito del pasado no es garantía suficiente para el éxito del futuro.

Debemos leer bien el momento, tener claro el rumbo, ser valientes y aprovechar las oportunidades que se nos presenten.

Gure esku dago dugun egonkortasuna sendotzea.

Horretarako, gure aurreko belaunaldiek erabili zituzten bi osagai uztartu behar ditugu: lidergo politiko eta instituzionala, batetik, eta komunitatearen indarra, bestetik.

Martxan jarritako egitasmo eta egiturek gizarte zibilaren hauspoari esker izan zuten arrakasta.

Honen adibide ditugu hirugarren sektore sozialaren babesarekin abiarazitako gizarte politikak.

Euskalgintzarekin elkarlanean euskararen ezagutzan eman genuen jauzia.

Edo berdintasunaren alde euskal gizarteak erakusten duen konpromisoa.

Izpiritu horri heldu behar diogu ongizatearen erronka garaikideei aurre egiteko.

Kapital soziala indartuz. Ardura partekatua sustatuz. Elkartasun sare eta molde berriak sortuz.

Hori bai, errealitatea bistatik galdu gabe. Gure herria erabat aldatu baitzaigu.

Eraldaketa sozial eta ekonomiko batean murgilduta gaude.

Datuek hori erakusten dute:

- Gaur egun, biztanleriaren erdiak 46 urte edo gehiago ditu. Duela 50 urterekin alderatzen badugu, bikoitza da.

- Duela 50 urte, 41.100 haur jaio ginen Euskadin. Iaz ez ziren 13.000ra iritsi.

- Gure herrian, 26.000 atzerritar genituen duela hiru hamarkada. Gaur egun ia 300.000 dira.

- 80ko hamarkadaren hasieran 645.000 pertsona zeuden lanean eta kotizatzen, gaur 1.006.000 gara.

- Gaur, Euskadiko etxebizitzaren heren batean pertsona bakarra bizi da.

Eraldaketa honek esan nahi du, eragin lokala eta globala duten erronkak uztartu behar ditugula.

Hasteko eta behin, herri egiten gaituzten elementuak eguneratu behar ditugu. Besteak beste: Kultura, ohiturak, gure erakundeak, hezkuntza edo hizkuntza.

Europako egungo joera emergenteei erreparatu behar diegu: Hiritartze prozesuak eta etxebizitzaren krisia, Gizartearen zahartzea, Dibertsitatea eta kultur-artekotasuna, Belaunaldi arteko arrakalak, Indibidualismoa, eta abar.

Horiekin batera, erronka globalei eta horien ondorioei erantzun behar diegu: Berotze globala eta muturreko fenomeno klimatikoak, Trantsizio energetikoa eta industriaren deskarbonizazioa, Adimen Artifiziala bezalako teknologia disruptiboak; Digitalizazioa edo pantailen erabilera.

Baita migrazioa ere.

Gerrak, jazarpenak, pobreziak, goseak eta aukera faltak bultzatuta, eta Euskadin dauden aukerak ikusita, gure Herrira etorkizun hobearen bila etortzen dira geroz eta pertsona gehiago.

La migración es una realidad estructural, y de dimensiones desconocidas hasta la fecha, que ha llegado para quedarse.

La pregunta es: ¿cómo debe responder este Pueblo, con nuestras características singulares y una lengua minorizada, a un fenómeno de esta complejidad y magnitud?

No valen respuestas simplistas. Tampoco podemos quedarnos de brazos cruzados. Esta realidad social nos interpela a todas y todos.

Es necesario explorar nuevos caminos. Y es fundamental dotarnos de todas las capacidades políticas a nuestro alcance para responder adecuadamente.

Cuando hablamos de renovar el contrato social, nos estamos refiriendo a sumar fuerzas institucionales y comunitarias para responder a retos de esta magnitud.

Herri aurreratuen erronka eta arazoak ditugu. Horiei behar bezala erantzuten asmatu behar dugu kontratu sozial berritu batean oinarrituz.

Ongizate-sistema zabaltzeko eta aro berri honetako beharretara egokitzeko aukera emango digun kontratu sozial berria sustatzeaz ari naiz.

Ezagutu dugun Ongizate-sistema industrializazioaren bidegabekeriak eta desorekak zuzentzeko jaio zen, eta konkista kolektibo handia izan da.

Hala ere, gaur egungoarekin zerikusirik ez duen gizarte bati erantzuna emateko sortu zen.

Gaur aro berri batean gaude.

Duela aste batzuk, Merz kantzilerrak mezu garbia bota zuen: "egungo ongizate-estatua ez da jasagarria".

Frantzia egoera okerragoa da. Aurrekontu-orekari eutsi ezinik, gastu publikoari erantzuna eman ezinik, murrizketa-proposamenek Gobernuaren erorketa eta krisi politiko berria ekarri dute.

Hau guztia kontutan izanik, herrialde aurreratuenekin partekatzen dugun galdera bat sortzen zaigu:

Posible al da Ongizate-sistema ezagutzen dugun bezala mantentzea?

Hori da gure buruari galdetu behar dioguna.

Nuestra responsabilidad es garantizar la sostenibilidad del modelo vasco de bienestar y acertar en su transformación.

Nuestro compromiso con el fortalecimiento de los servicios públicos es innegociable. Este compromiso vertebró nuestro Programa de Gobierno.

Lo dije en el Discurso de investidura: aspiramos a consolidar unos servicios de salud, educación, seguridad o políticas sociales punteros en Europa; compatibilizando esta ambición con una realidad: los recursos públicos son finitos, y dependen de nuestra fortaleza económica y empresarial.

La situación exige una apuesta decidida por el impulso de la actividad económica, el apoyo a la empresa y el emprendimiento, los nuevos sectores económicos y una política industrial sólida.

Sin creación de riqueza colectiva, no hay políticas de redistribución y bienestar.

Kalitatezko enplegua izan da ongizate estatuaren zutabe nagusietako bat. Beraz, ezinbestekoa dugu lehiakortasunari eta lan munduari lotutako erronka eta aukerei heltzea.

Enpresen eta kalitatezko enpleguaren etorkizunaz ari garenean, denon etorkizunaz ari gara.

Horiei lotutako arazoak negoziazioaren eta akordioaren bitartez bideratu behar ditugu, herri ikuspegia kontuan hartuta.

Gai izan behar dugu gai guztiei buruz hitz egiteko, guztiekin. Lubakiak, konfrontazioa eta marra gorriak alde batera utzita. Modu eraikitzailean.

Hitz egin behar dugu lan baldintzez, kontzilioaz edo lan osasunaz. Baita soldatei eta gure harrobia diren gazteen ibilbide profesionalei buruz ere.

Hitz egin behar dugu lehiakortasuna eta produktibitatea hobetzeaz, lan jardunaldiaz, gutxieneko lanbide-arteko soldataz, eredu parte-hartzailea indartzeaz edo absentismoa murrizteaz.

Eta hitz egin behar dugu lan munduan dauden arrakalei buruz: Emakume eta gizonen artean, Esparru publikoaren eta pribatuaren artean, Hitzarmen kolektibo baten babesba dutenen edo ez dutenen artean.

Además, la situación exige el máximo rigor, eficacia y eficiencia, tanto en el gasto como en la inversión pública.

Es cierto que somos un país fiable y confiable. Mantenemos la ratio de deuda pública sobre PIB en el 10,9%.

Esto nos ha permitido, por ejemplo, mantener el rating de calificación financiera de las instituciones vascas en mejores condiciones que las del Estado.

Esto nos permite contar con recursos extraordinarios para activar la Agenda económica vasca: inversiones de carácter productivo y apuestas transformadoras de alcance para el futuro, como demuestra la Alianza Financiera Vasca o el nuevo Plan industrial.

Tenemos que seguir preparándonos para lo que pueda venir.

Tenemos que aprovechar las oportunidades y explorar nuevas fórmulas para revisar y ensanchar nuestro Estado de Bienestar.

Me detengo en esta idea:

La experiencia nos muestra que el bienestar no debe entenderse únicamente en términos clásicos y materiales.

Debe entenderse, también, desde una mirada emocional y comunitaria.

Es precisamente esta visión integral del Bienestar la que debe impregnar la Agenda vasca de los próximos años.

El trabajo colectivo realizado durante décadas ha situado a Euskadi al nivel de los países más avanzados de Occidente.

Es cierto que tenemos problemas a los que no podemos dar la espalda. Pero el progreso material alcanzado, los estándares de calidad de vida, son una realidad objetiva y cuantificable.

Sin embargo... ¿es esto suficiente? ¿Significa que lo tenemos todo hecho?

Obviamente, no.

La realidad nos muestra que existe una cara 'B'.

Hablo de nuevos desafíos de una sociedad avanzada.

Hoy se nos plantean preguntas que debemos responder por incómodas que sean:

¿Por qué, en una sociedad del bienestar, existe entre determinados colectivos una sensación de malestar y enfado permanente?

¿Por qué aumentan las depresiones, la ansiedad, las adicciones o el consumo de antidepresivos?

¿Por qué, en una sociedad teóricamente más conectada, hay cada vez más personas que se sienten solas?

¿Por qué no sabemos qué edad es la adecuada para comprar un móvil a nuestras hijas e hijos?

¿Por qué hay personas incapaces de dedicar tiempo al cuidado de su salud?

No, el Gobierno no tiene todas las respuestas. Seguramente, tampoco las tenga hoy nuestra sociedad en su conjunto.

Pero tenemos una cosa clara: el Estado de Bienestar no significa, necesariamente, 'Estar y Sentirse Bien'.

Hoy los trastornos del estado de ánimo suponen un problema para la salud pública. El número de personas que "no se siente bien" crece.

Doy dos datos:

- En Euskadi, una de cada tres consultas de Atención Primaria está relacionada con la salud mental o el bienestar emocional, y

- La salud, incluyendo la salud mental, se posiciona como la prioridad en la formulación de políticas públicas destinadas a mejorar la situación de la juventud vasca.

Esto nos pone ante nuestra realidad: debemos atender de forma específica nuestro bienestar o, mejor dicho, nuestro malestar emocional.

Somos personas, somos vulnerables y no queremos esconder que lo somos.

Debemos hacer política con la cabeza y, también, con el corazón. Con sensibilidad y alma.

Debemos actualizar la agenda política incorporando estas necesidades. Innovando y experimentando. Sin miedo a fallar. De la mano de quienes más saben.

Si, además de vivir bien, queremos sentirnos bien, debemos cuidar y cultivar lo emocional.

El bienestar emocional debe ser parte del nuevo contrato social vasco, inspirar las políticas públicas, constituir una columna de nuestro Estado de Bienestar.

Por eso, hoy anuncio cuatro líneas de trabajo ligadas al bienestar emocional, que vamos a poner en marcha este curso:

-Primera: Despliegue de profesionales de psicología en Atención Primaria

Un sistema de salud de la máxima calidad debe garantizar también la asistencia psicológica.

Es injusto que haya personas que necesitan ayuda profesional y no puedan acceder a ella porque no pueden pagar la terapia.

Vamos a dotar a Osakidetza de un enfoque distinto que incluya tratamientos psicológicos ya en Atención Primaria para los casos más leves.

De esta manera, los servicios especializados en salud mental podrán centrarse en aquellos casos más complejos, en los que la sintomatología clínica y el deterioro funcional es mayor.

Esta medida está basada en las recomendaciones de las y los profesionales. No dará respuesta a toda la demanda, pero será un primer paso en el camino que hemos emprendido y que iremos ampliando a lo largo de la legislatura.

- Segunda línea de trabajo: Un canal para tratar el bienestar emocional y el autocuidado de las y los adolescentes.

Hablamos de un programa piloto dirigido a chavales de entre 15 y 18 años que desarrollaremos en Aiaraldea, Irún, Gasteiz y Etxebarri de la mano de la Federación de Salud Mental de Euskadi.

El objetivo es abrir una nueva puerta de escucha, acompañamiento y ayuda para las y los jóvenes. Un canal de atención emocional para facilitar espacios seguros de comunicación y expresión donde podrán transmitir sus dudas y preocupaciones; donde encontrarán un profesional que les atiende y ayude.

Será un proyecto piloto que evaluaremos al final del curso y extenderemos a todo Euskadi si los resultados son positivos.

Además, en colaboración con los Ayuntamientos y bajo el paraguas de la iniciativa Kristalezkoak, activaremos servicios de asesoría a través de las Oficinas de atención a la juventud.

- Tercera línea: Respuesta ante el uso abusivo de las pantallas.

No son pocas las amas y aitas que me han parado por la calle. Tienen preguntas. ¿Cómo no las van a tener?

En Euskadi se ha identificado el uso compulsivo de internet entre el 25% de las chicas y el 16% de los chicos adolescentes.

Hablamos de una adicción sin sustancia química que genera dependencia y deterioro funcional.

Estamos trabajando sobre esta realidad:

- En el marco de la iniciativa Bizikasi y el Plan de Transformación Digital, abordamos esta cuestión junto con la comunidad educativa,

- Los centros educativos han recogido sus propuestas sobre el uso de los dispositivos móviles,

- Estamos realizando campañas de sensibilización y educación digital para la promoción de un uso responsable de pantallas.

Pero necesitamos más. Mucho más. Necesitamos ampliar y elevar el debate público sobre las pantallas.

Por eso, como Lehendakari, lideraré un grupo de trabajo con el objetivo de contar con una Estrategia Integral de País sobre el Uso de las Pantallas antes de finalizar este curso.

En este grupo participan siete Departamentos del Gobierno. Y trabajará, codo con codo, junto a un equipo profesional independiente que nos ayudará a caminar con mayor seguridad.

Además, abriremos esta reflexión a las instituciones vascas, porque las Diputaciones Forales y los Ayuntamientos tienen mucho que aportar. También los medios de comunicación o las y los creadores de contenidos en Redes.

La nueva Estrategia ofrecerá respuestas dirigidas no solo a las y los jóvenes de hoy. Sino que pondrá su foco en el comienzo de todo, antes del nacimiento, aportando una visión prenatal, implicando desde el comienzo a las familias.

- Cuarta línea: Promoción de la actividad física y el deporte.

La actividad física tiene efectos directos sobre nuestro bienestar físico y emocional.

Reducir el estrés, mejorar el estado de ánimo, disminuir la ansiedad y la depresión, favorecer el sueño o aumentar la autoestima y confianza son algunos de sus beneficios contrastados.

El deporte en grupo mejora también las habilidades sociales y el sentido de pertenencia.

Sabemos todo esto, pero una parte importante de la población no da el paso.

Las causas son múltiples: falta de tiempo, de motivación o de recursos, barreras físicas o de salud, inseguridad, miedo al fracaso...

Debemos promocionar el hábito de la actividad física y la alimentación saludable, porque el cuidado de la salud comienza por uno mismo.

Vamos a activar un espacio de encuentro en el que instituciones, asociaciones y ciudadanía van a analizar, acordar y dar seguimiento a acciones en materia de actividad física.

Y vamos a seguir dando pasos para llevar la tarjeta Mugiment a todos los municipios vascos.

Ondo baino hobeto dakit egin dudan diagnostikoari erantzuteko lau neurri hauek ez direla nahikoak izango.

Gure ongizate eredia zabaltzeko, erronka berriei erantzuteko, hamaika aldaketa eta neurri gehiago aktibatu beharko ditugu. Izan ere ez dugu bi egunetan lortuko kontratu sozial berria eraikitzea.

Gure nahia da bide berri bat zabaltzea. Apaltasun osoz, erantzun berriak proposatzea.

80ko hamarkadako Jaurlaritzak, eta ondorengoek ere, bisio aurreratua eta ausardia erakutsi zuten.

Gauza bera egitea dagokigu.

Horretarako, sentsibilitate emozionala aplikatu behar dugu politika publikoetan. Enpatia eta arima.

Ekimen hauek bide berri bat irekitzen dute pertsonaren ongizate emozionala hobetzeko.

Baina pertsonaren ongizate emozionala, gure buruaz harago doa. Ongizate komunitarioaren baitan kokatu behar dugu.

Joxe Migel Barandiaranek bikain azaldu zuen pertsona guztion ongizatean eta garapenean giza loturek duten garrantzia "Ez gara gure baitakoak" esan zuenean.

Komunitate baten parte garen heinean garatzen eta hazten gara pertsona bezala. Hartu eta eman. Harremanen aterkipean aurkitzen dugu zentzua.

Kontratu sozial berriak norabide bikoitza izan behar du: komunitateak pertsona zaindu behar du. Baina pertsonak ere komunitatearekin konpromisoa erakutsi behar du.

Eskubideez ari gara, bai, baina baita erantzukizunez ere.

Mundu ziurgabe honetan, kapital soziala indartu behar dugu. Ongizate komunitarioa da ipar-orratza.

Ongizatea ez dago individualismoan. Ez da 'selfie'-a; talde argazkia baizik.

Ez dago neurrigabeko kontsumismoan. Ez dago sare sozialek sarritan irudikatzen duten fikziozko zoriontasunean.

Benetan zaintzen, babesten eta zoriontsu izaten laguntzen digun inguruan dago ongizatea.

Gertutasunean, konfiantzan eta elkarlanean oinarritutako harremanetan.

Horregatik guztiagatik, gaur bosgarren lan ildo bat partekatuko dut: nahi gabeko bakardadeari aurre egitea.

Bakardadeak edonori eragin diezaioke. Berdin dio adinak, sexuak, generoak edo jatorriak.

Duela 10 urte, Europar Batzordeak ohartarazi zuen 30 milioi lagun, bakarrik sentitzen zirela sarritan.

Bakardadea pairatzen dutenei arreta eskaintzeaz gain, prebentzioa landu behar dugu.

Eta, batez ere, kalitatezko harreman sozialak sustatu behar ditugu.

Bi esparrutan ari gara lanean:

Europar, TRANSIS LAB proiektua garatzen ari gara, landa eremutan bizi diren adineko pertsona zaugarriak babesteko. Bestetik, POCTEFA eta INTERREG deialdien barruan, Euroeskualdearen baitan, belaunaldi arteko elkartasunaren ikuspegia txertatuko duten proiektuak prestatu ditugu.

Horrekin batera, Lagunkoia, Nagusi Agenda edo Beti On zerbitzua bezalako egitasmoak garatzen ditugu, adinekoei zuzenduta.

Hauek sendotzeaz gain, ezinbestekoa dugu fokua zabaltzea.

Bizitzaren etapa guztietan pedagogia eta sentsibilizazioa landu behar ditugu.

Horretarako, hainbat berrikuntza ekarriko ditugu: 'Familiak', Suizidioa prebenitzeko estrategia, Zaintzen ituna, Kuvu etxebizitza-proiektua, edo Boluntariora estrategia.

Era berean, 'Zaintza Herri Lab' bezalako ekimen aitzindariak babesten jarraituko dugu. Honen bidez, zaintza ekosistema lokal berritzaileak hedatu dira dagoeneko.

Proiektuak bi osagai nagusi ditu: eremu soziosanitarioko erakunde publiko, pribatu eta komunitario nagusien arteko elkarlana, batetik; eta pertsonalizazioa, bestetik.

Horrela, hauskortasun edo mendekotasun egoeran dauden adinekoek etxean bizitzen jarraitzea ahalbidetzen da, haien autonomia eta ongizatea hobetuz.

Psikologoak Lehen Arretan, Nerabeen ongizate emozionala, Pantailak, Jarduera fisikoa edo Bakardadea. Gai hauekin osatuko dugu ere Euskal Agenda.

Proiektu berriak eta berritzaileak dira. Oraina hobetzeko eta etorkizuna elkarrekin eraikitzeko ilusioak mugitzen du Euskadi. Hala izango da aurrerantzean ere.

Laugarren atala: ziurgabetasun egoera honi ekintzen bidez erantzuna ematen dion Gobernu.

Herritar guztien ongizatean aurrera egitea da Gobernuaren helburu nagusia, hori da Eusko Alderdi Jeltzaleak eta Euskadiko Alderdi Sozialistak adostu dugun Programak erakusten duena.

Zer esan nahi du horrek? Pertsona oroan ongizatean oinarrituta, gizarte osoarena hobetzea.

Baina horretarako tresnak behar ditugu eta gurea, dagoeneko, definituta dugu: Euskal Agenda.

Itsaso mugitu honetan nabigatzen lagundu behar gaitu Euskal Agendak. Gaur eta baita bihar ere.

Ongizatea hobetzeko bidean helburu eta konpromiso berriak azpimarratu ditut; baina, geldialdi bat eginez, azken urte honetan emandako urratsak aurkeztea ere beharrezkoa dela iruditzen zait.

Comienzo por los principios. Por la forma de gobernar.

Tal y como comprometí en el Debate de investidura, este ha sido un Gobierno abierto al diálogo, la participación, el acuerdo y la colaboración.

Este es el espíritu que hemos compartido en el seno del Gobierno, tanto las y los consejeros del Partido Nacionalista Vasco como del Partido Socialista de Euskadi.

Estamos comprometidos con un Programa y con una forma constructiva y positiva de gobernar.

Este mes he mantenido una tercera ronda de trabajo con los partidos políticos, planteando una Agenda política, socioeconómica y de Autogobierno.

He mantenido esta misma actitud con el resto de las instituciones, así como con la representación de las asociaciones y agentes sociales, económicos, académicos o profesionales de la sociedad vasca.

Es la manera de hacer política en la que creo. Y es, además, lo que nos exige la ciudadanía: mínimo ruido posible, colaboración, consenso y búsqueda permanente de resultados.

Es lo que tratamos de hacer cada día.

He hablado de un Gobierno de acción. Desde el primer día definimos nuestra hoja de ruta:

- Fortalecer los servicios públicos,
- Invertir en las transformaciones para preparar el futuro de Euskadi, y
- Reforzar nuestro sentido de comunidad.

Todo ello para lograr nuestro objetivo prioritario: crecer como País y crecer en bienestar.

A continuación, presento los pasos que hemos dado en este camino.

Primer pilar: fortalecer nuestros servicios públicos.

La acción política significa, ante todo, tomar decisiones. Y la nuestra fue clara: la salud, antes de nada.

Decidimos avanzar de la mano de quienes más saben: las y los profesionales, a quienes hemos escuchado de manera permanente a lo largo de este primer año.

En primera instancia, hemos puesto en marcha un Plan de choque para reducir las listas de espera y mejorar la Atención primaria.

Tenemos un largo camino por delante, pero estamos obteniendo ya los primeros resultados:

- 56,6 días para operación quirúrgica,
- 55 para consultas externas, y
- 36,6 para pruebas complementarias.

Además, hemos compartido diagnóstico, valores y prioridades en la Mesa de Salud, consensuando una hoja de ruta para transformar Osakidetza a través de 24 líneas de actuación estratégica.

Hemos avanzado en la estabilización de la plantilla, con siete OPEs que han permitido reducir la eventualidad del 37 al 11%.

Hemos acordado en la Mesa Sectorial un nuevo modelo de OPE y la próxima convocatoria de más de 4.000 plazas que reducirán la eventualidad al 9%.

En paralelo, hemos mejorado las infraestructuras y servicios de Osakidetza, destacando la integración de Onkologikoa; los Centros de Salud de Aretxabaleta y Oion; la reapertura del

PAC de San Martín o las Urgencias de Santiago en Gasteiz; el acuerdo entre Basurto y Cruces para el servicio de Cirugía cardíaca; la ampliación del Programa de Asistencia Dental Infantil; la Unidad de atención a personas con Covid persistente; o el nuevo servicio de Paliativos de Santa Marina.

La vivienda ha sido otra prioridad que nos ha preocupado y ocupado desde el inicio.

Hemos puesto en marcha la Mesa del Pacto Social por la vivienda, aprobado el Plan Director y los “contratos programa” de Visesa, que permitirán pasar de 500 a 750 viviendas construidas al año.

Se ha propuesto la Ley de Medidas Urgentes de Vivienda, Suelo y Urbanismo que tramitamos en esta Cámara; aprobado la línea de avales para facilitar el acceso a la vivienda a personas de hasta 39 años; y comenzado la declaración y despliegue de Zonas Tensionadas, incluyendo las tres capitales.

Hemos ampliado los criterios para que las y los jóvenes puedan beneficiarse en mayor medida del Programa de ayudas Emantzipa, ampliando los ingresos mínimos hasta los 30.000 euros (36.500 en caso de declaración conjunta). Próximamente lo haremos también con Gaztelagun.

En Educación, hemos activado ‘Eskola Bikaina Denontzat’, la mesa por una escuela pública inclusiva, equitativa y de calidad; y alcanzado un acuerdo con los sindicatos en las Mesas del sector.

En el ámbito de ciencia y universidades hemos incrementado un 20% el presupuesto del Programa cuatrienal de ayudas a grupos de investigación universitaria, poniendo el foco en la calidad de la producción científica y el liderazgo de las investigadoras.

Estamos desarrollando el Plan de divulgación social de la ciencia y el conocimiento.

Seguimos extendiendo el servicio de teleasistencia BetiOn, que ha superado por primera vez las 80.000 personas usuarias.

Este año hemos hecho efectiva la gratuidad en el transporte público para las y los menores de 12 años. Además, hemos puesto en marcha la nueva línea de cercanías en la Llanada alavesa.

Entre las inversiones, destacan la encomienda de gestión para las obras del nudo de Arkaute de la ‘Y’ vasca, el Polo Cuántico de Donostia o el Centro Basque Team.

Hemos avanzado en la ampliación de los Parques tecnológicos o industriales con la primera piedra en el Campus Bilbao, el Campus de Hernani o el convenio para la expansión del Campus Donostia en Illunbe.

Hemos creado el Grupo para la Defensa Industrial y aprobado un escudo comercial de 2.150 millones de euros para proteger al tejido empresarial vasco de las medidas arancelarias que podrían llegar a tener una afección de 700 millones de euros en nuestra economía.

Hemos constituido la Alianza Financiera Vasca, maximizado la gestión de los Fondos Europeos MRR y elaborado el Plan Industrial que aprobaremos y remitiremos a esta Cámara próximamente.

Además, anteaer hemos logrado que el Gobierno Español adjudique más de 5.200 MW de potencia eléctrica asegurando proyectos industriales clave para el futuro de Euskadi. Este acuerdo va a contribuir a consolidar el empleo de más de 70.000 personas.

Por otra parte, respondiendo al compromiso asumido, hemos presentado el Estudio del salario mínimo en Euskadi para la negociación colectiva.

En materia de seguridad, hemos mejorado el parque de movilidad de la Ertzaintza, con la renovación de vehículos o de la flota completa de helicópteros.

Honaino, beraz, lehen zutabea, hau da, gizarteari eskaintzen dizkiogun zerbitzu publikoak hobetzea eta indartzea.

Bigarren zutabea: Euskadiren etorkizuna prestatu inbertsio eraldatzaileen bitartez.

Eguneroko konpromisoei erantzutearekin batera, gure Herria prestatu behar dugu datozen hamarkadetarako.

Horrek eskatzen du apustu estrategikoak egitea, eraldaketak denon artean bultzatuz.

Pongo en valor la visión estratégica compartida en las siguientes iniciativas: HUB de Vanguardia de Economía Social (ASETT), Estrategia de relevo generacional del sector agrario, y Estrategia Vasca de Empleo 2030.

Destaco la presentación de la Estrategia Euskadi Global para la internacionalización de Euskadi, la nueva Agenda Vasca de Derechos Humanos o los avances en la actualización y fortalecimiento de los Protocolos de colaboración que compartimos con Nafarroa e Iparralde.

Hemos alcanzado acuerdos que nos van a permitir asentar los procesos de mejora de los servicios públicos.

Hablo, por ejemplo, de los Acuerdos profesionales en la Ertzaintza, Administración penitenciaria, Educación pública o la estabilización de la plantilla de Osakidetza.

Junto a ello, destaco acuerdos de carácter estratégico como el primer Plan para la transformación de la Escuela pública vasca, el Comité de expertos para la evaluación del sistema educativo, el Programa MerkaEkin de ayudas al emprendimiento comercial, o la aprobación del Código Ético del Turismo, una iniciativa pionera que impulsa la sostenibilidad y la competitividad de las empresas. Más de 800 se han adherido a este Código tras un proceso de auditoría y formación.

En el primer sector, hemos sido el primer territorio en aprobar la Estrategia Integral del Relevo Generacional del Sector Agrario, con un presupuesto de más de 25 millones de euros y un horizonte de 10 años. Estamos incrementando el apoyo al sector vitivinícola ante la amenaza arancelaria.

Además, hemos puesto en marcha la competencia de gestión del litoral y constituido los Consejos de participación portuaria.

A su vez, la semana pasada firmamos un convenio con el Gobierno de Canarias que nos va a permitir extender nuestra colaboración, compartiendo proyectos comunes en I+D+i, internacionalización, industrias culturales y creativas, economía azul, o Formación Profesional.

Hirugarren zutabea: komunitatea indartzea.

Argi dugu etorkizuneko erronkei erantzuteko gure komunitate ardura eta sentimendua indartu behar ditugula.

Azken finean, komunitatearen parte izateak zerbait handiagoaren parte garela esan nahi du.

Bat gatoz etorkizuneko ikuspegian: denok nahi dugu komunitate irekia, orekatua eta justua. Badakigu nekez gaindituko ditugula erronkak bakoitza bere aldetik badoa.

Gure komunitate-izaera josteko, euskara, kultura, eta baloreak giltzarriak dira, Nafarroarekin eta Iparralderekin partekatzen ditugunak, Herri egiten gaituztenak.

Aspaldi ohartarazi dugu euskara 'bidegurutze' batean dagoela, bultzada berri baten premia duela.

Gizarte, komunikazio eta teknologia eraldaketen poderioz, erantzun gaurkotuak eta egokiak eskatzen dituzten erronka berriak ditugu.

Atxikimendu emozionala, konplizitate eta aliantzak eraiki behar ditugu, euskara dutenen, eta ez dutenen artean. Zubiak eta esperimentazioa behar ditugu.

Elkarrekin egin behar dugu bidea: erakundeek, euskalgintzak, indar politikoek, gizarte eragileek, enpresek, hezkuntza komunitateak eta familiek. Euskara biziberritzeko, ez da nahikoa bakoitza bere aldetik joatea.

Horregatik jarri dugu martxan 'Jauzia Gara' ekimena.

Badakigu baita ere kulturak komunitatea eraikitzen duela, funtsezko papera betetzen duela gure baloreen garapenean eta transmisioan.

Lanean ari gara kultur sorkuntza eta ekoizpena bermatuko dituzten politika publikoak, azpiegiturak eta lege aldaketak aurrera eramateko. Hau ez da aukera bat, euskaldun bezala dugun betebeharra baizik.

Egun bizi dugun errealitateak etorkizunari ilusioarekin begiratzen laguntzen digu. Izan ere, gure Herrian talentu maila izugarria dugu. Horren erakusle dira berriki izan ditugun azken albistek.

Gure Herriko musika artistak gai dira oso ordu gutxitan futbol zelaiak betetzeko. Ez gurean bakarrik, baita Madrilen ere.

Instrumentu klasikoak eta egungo taldeak uztartuz, posible da Erakusketa Azoka bat asteburu oso batean zehar betetzea eta milaka lagun erakartzea.

Edo bihar hasiko den Zinemaldiak errekorra gaindituko du euskarazko produkzioei dagokienez.

Laburbilduz, honek erakusten digu talentua bultzatuz ez dagoela mugarik.

Horregatik, Jaurlaritzak beti babestu eta besarkatuko ditu anbizioz egindako euskal proiektuak: txikiak edo handiak izan.

Kirol arloan, pilotan, berri pozgarria izan dugu: euskal selekzioaren aitortza. Gure selekzioa ofizialki lehen aldiz lehiatu da, Nazioen Ligan.

Bide horretan pausoak ematen jarraitu behar dugu.

Nabarmentzekoak dira euskara sustatzeko, ikasteko eta erabiltzeko bultzatzen ari garen ekinbideak, doakotasuna zabalduz.

Aniztasunaren, integrazioaren eta elkarbizitzaren erronka kudeatzen ari gara ere: azken 5 urte hauetan, 75.000 pertsona iritsi dira Euskadira.

Oinarri sendoa dugu: Migrazioako Euskal Itun Soziala, babes instituzional, politiko, enpresarial, sindikal eta sozial zabalarekin onartua.

Apirilaren 3an Itun hori berretsi genuen Legebiltzar honen %88ren babesarekin, "giza eskubideen defentsaren, kohesio sozialaren eta integrazioaren printzipioetan oinarritutako migrazio ordenatu, seguru eta erregularra" bermatzeko.

Gaur egun, 15.000 pertsonari arreta ematen diegu hirugarren sektorearekin elkarlanean, 'Aholku Sarea', 'Harrera' edo 'Loturak' bezalako programen bitartez.

Azkenik, migrazioaren arloan, "muga estatusa" lortzeko negoziazioetan gaude Espainiako gobernuarekin.

Reforzar el sentido de comunidad significa impulsar la cultura, reforzar nuestros valores, garantizar la igualdad y la cohesión social. También avanzar en Autogobierno.

En 2025 hemos avanzado.

Hemos suscrito 34 acuerdos en cuatro reuniones de la Comisión Mixta del Concierto Económico, en materias relacionadas con la defensa y fortalecimiento del Autogobierno económico, fiscal y financiero de las instituciones vascas.

Estos acuerdos han supuesto abrir una nueva fase en la participación de las instituciones vascas en los foros internacionales en materia fiscal, consolidar un marco propio de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera o concertar nuevos tributos, la mayoría de ellos con capacidad normativa plena.

Hemos logrado las nuevas competencias de Cinematografía, Autorizaciones de trabajo de personas extranjeras, Gestión del litoral, Meteorología, Salvamento marítimo, Centro de Salud laboral, Prestaciones no contributivas de la Seguridad Social o Seguro escolar.

Además, ayer mismo, alcanzamos el Acuerdo para la transferencia de las prestaciones por desempleo y el subsidio de paro. Esta competencia nos permitirá ofrecer este servicio a 51.000 personas y gestionar 822 millones de euros, recibiendo las 30 Oficinas del Servicio Público de Empleo en Euskadi.

Por fin vamos a poder desarrollar una Política de Empleo integral, que incluya tanto las Políticas activas como las pasivas. Es un hito del Autogobierno vasco.

Aurrera egin dugu, baina bide luzea dugu egiteko.

Ikasturte berrirako hartzen ditugun konpromisoez arituko naiz jarraian.

Lehentasunezko erronkei dagokionez, hauek izango dira Euskal Agendaren mugarri nagusiak:

- Osasuna: Itunaren Mahaian adostutako 24 lan ildo estrategikoak garatu, eta 4.245 plazako Enplegu Publikoko Eskaintza aterako dugu eredu berriarekin.

- Etxebizitza: Inbertsio publikoa eta pribatua mobilizatuko duen Fondo Soziala aktibatuko dugu. Eremu tentsionatuen izendapena adosten jarraituko dugu, biztanlegoaren %70era iritsiz. Aurreko ikasturtean 2.500 etxebizitza bukatu ziren, orain 4.000 baino gehiago izango dira. Aurreko ikasturtean 12 hitzarmen sinatu genituen Udalekin, orain 23 aurreikusi ditugu.

- Hezkuntza: 'Eskola Bikaina Denontzat' ekimen berria, edo Lanbide Heziketan enplegarritasuna bultzatzeko 2030 estrategia.

- Zientzia eta Unibertsitateak: Berrikuntza Faroak eta horiei dagozkien lehen proiektuak aurkeztuko ditugu; 'Zientzia Teknologia eta Berrikuntza' Plana eguneratuko dugu; "System Two" ordenadore kuantikoa martxan jarriko dugu; Azterketa Aurreratuen Zentro berriaren diseinatu; eta Euskorpus proiektuari jarraipena emango diogu.

- Segurtasuna: Foroak bere ondorioak aurkeztuko ditu uztailean. 2030garren urtean 8.000 ertzain izateko Enplegu Plana onartuko da, eta martxoan lortu genuen Akordio Profesional Arautzailea ezarriko dugu.

- Industria: Euskal Finantza Aliantzaren inbertsioen plana zehaztuko dugu, Euskadiko Finantza Institutuaren eskutik; eta Industria Planaren Proiektu Eraldatzaileak aurkeztuko ditugu.

-Energia: bi proiektu eoliko berri martxan jarriko ditugu eta energia handitzeko akordioa lortu ostean, geldri egon diren industria proiektuak abiatzeko moduan egongo dira.

- Enplegua: Lanbideren eraldaketa abiatuko dugu Enplegu politika integrala bultzatzeko; 33 milioi euro aktibatuko ditugu zailtasunak dituztenen laneratzea errazteko; eta Talentua sustatzeko, errotzeko eta erakartzeko programak indartuko ditugu.

- Gazteria: Gaur iragartzen dut umeen jaiotzagatik 200 euroko diru-laguntzak 4 urtera arte luzatuko direla. Eta familia ugarien edo guraso bakarrekentzat, 100 euroko laguntza 7 urtera arte handituko dela.

- Berdintasuna: Lege berriak eskaintzen dituen aukera guztiak garatuko ditugu, Indarkeria matxista pairatzen duten emakumeen babesa eta arreta indartuz; Gizonduz programa ere zabalduko dugu.

Bestetik, Agertokiak espazioaren bidez gazteekin harremantzeko bide esperimentalak esploratuko ditugu haiekin batera erronkei aurre egiteko. Azkenik Emantzipa dirulaguntzak eskuratzeko adina 23 urtera jaitsiko dugu.

- Euskara: 'Jauzia Gara' estrategiarekin bide berria urratuko dugu, datozen hamarkadetan biziberritzearen oinarrien inguruan adostasun zabala lortzeko.

- Lehen sektorea: hamar urtetan 1.250 gazte erakartzeko estrategia garatuko dugu; eta Nekazal Politika Bateratua aldatzeko proposamena egingo diogu Europari, basoen kudeaketa eta suteen prebentzioa aintzat hartuz.

- Turismoa: zerga berria ezartzeko akordioa gauzatuko dugu, Foru Aldundiekin eta Eudelekin elkarlanean.

Destaco la apuesta por la inversión pública y el **impulso a las infraestructuras**:

- Despliegue del Plan de Infraestructuras de Osakidetza 2025-2031 de 1.300 millones para la mejora de una asistencia integral con el fortalecimiento de la Atención Primaria y la modernización y mejora de la atención hospitalaria.

- Plan 'Hezkuntza Eraiki' para modernizar infraestructuras educativas, con 750 millones hasta 2030.

- Nueva variante del topo en Donostia y conexión de Galtzaraborda.

- Inicio de las obras del tranvía a Zabalzana en Vitoria-Gasteiz.

- Interoperabilidad de las tarjetas de transporte Bat, Barik y Mugik.

- Recrecimiento de diques portuarios, nuevas fábricas de hielo en Bermeo y Ondarroa y apoyo a nuestros arrantzales.

- Apertura del Centro de innovación en gastronomía GOE en Donostia, el Centro de Alto Rendimiento del Deporte en Fadura, y el Laboratorio de alta seguridad de NEIKER en Derio.

- Reforma del Teatro Principal en Vitoria-Gasteiz.

- Nuevos módulos cerrados en el Centro penitenciario de Araba, apertura del Centro penitenciario de Gipuzkoa, y nuevos Centros de inserción social.

Además, vamos a desplegar nuevas medidas para **facilitar la vida de las personas** en su relación con la Administración.

En un reciente artículo Xavier Marcet decía: "el servicio público consiste en complicarse la vida en favor de los demás, no en complicar la vida a los demás".

Entiendo que el compromiso debe comenzar por el propio Gobierno. Vamos a desburocratizar la Administración pública vasca.

Lo asumimos con la máxima autoexigencia y el convencimiento de que este impulso debe ser transversal y abarcar al conjunto de los Departamentos.

Hemos puesto en marcha el Foro para la Desburocratización de la Administración y estamos ultimando el proyecto de la Ley de Simplificación y Agilización Administrativa.

Avanzaremos en la digitalización de la Administración y el nuevo modelo de atención ciudadana con la renovación de Zuzenean, los nuevos KZ Gunea y el desarrollo del Plan EKI.

Este próximo curso presentaremos la plataforma de ventanilla única: DENA.

En **Industria**, de forma extraordinaria, vamos a habilitar una vía rápida para proyectos estratégicos de inversión.

Así mismo, reduciremos un 30% los plazos de aprobación de las nuevas inversiones industriales y un 25% los trámites de las pymes para acceder a las ayudas en los ámbitos de digitalización y transición energética.

En Vivienda, vamos a agilizar los trámites urbanísticos para movilizar suelo con mayor rapidez.

En Investigación universitaria, con el nuevo programa cuatrienal aligeraremos la carga burocrática en la solicitud y resolución de ayudas, facilitando los trámites de los equipos de investigación y resolviendo antes las convocatorias.

Vamos a implantar reformas urgentes con el objetivo de reducir un 25% los trámites de las pymes para acceder a las ayudas, en dos ámbitos clave como la digitalización y la transición energética.

Además, apostamos por una simplificación real y efectiva de la Política Agrícola Común, que reduzca la complejidad burocrática y mejore la eficiencia en la gestión, tanto para las y los baserritarras como para las Administraciones.

Este impulso a la desburocratización lo complementaremos con la evaluación y revisión de nuestras políticas públicas para seguir construyendo una Administración más moderna, transparente, eficiente y flexible.

Adelanto también los compromisos de carácter legislativo para este próximo año:

- Ley del Sistema Cultural;
- Ley de Simplificación y Agilización Administrativa que he citado con anterioridad;
- Ley de Comunidad Vasca en el Exterior;
- Ley de Igualdad de Trato y Lucha Contra la Discriminación;
- Ley de Turismo; o
- Ley de Transparencia.

Añado los compromisos normativos de especial relevancia:

- Decreto de la Red de Teatros de Euskadi;
- Aprobación del Plan Territorial Sectorial de Renovables;
- Decreto de Medidas Urgentes de Vivienda;
- Nuevo Plan de Salud Pública y nueva normativa que regule la participación de Asociaciones de pacientes; o
- Nuevo Plan de Justicia juvenil.

Además, este próximo curso vamos a renovar los Protocolos de colaboración con el Gobierno foral de Navarra y la Mancomunidad de Iparralde.

Cierro este apartado reafirmando mi compromiso de seguir profundizando en una Agenda interinstitucional vasca junto con las Diputaciones Forales y los Ayuntamientos.

También en esta materia debemos compartir una reflexión y una nueva mirada: el tiempo ha cambiado, también la dimensión de los retos que afrontamos. No es suficiente con unir fuerzas, nos corresponde abrir una nueva etapa y multiplicar la colaboración interinstitucional.

De hecho, estamos alineando esfuerzos en ámbitos como Vivienda, Transformación industrial, Innovación y tecnología, Zonas de Actuación Prioritaria, Buen Gobierno o Turismo sostenible.

En esta línea, ayer renovamos el convenio con el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz para el impulso de inversiones estratégicas en la capital.

Honaino beraz ziurgabetasun garaietan ekintzen bidez erantzuten duen Gobernuaren zeregina.

Abian gaude. Hamabost hilabete hauetan gure Programan hartutako konpromiso eta ekinbideen %61a bete dugu.

Hau da gure Koalizio Gobernuaren helburua: gizartearen lehenetasunei erantzutea, emandako hitza betetzea eta gure Herriari egonkortasuna ematea.

Horrela ulertzen dugu ardura politikoa eta instituzionala.

Abordo a continuación el siguiente apartado de esta intervención: la relación de Euskadi con el Estado español.

Este verano, los incendios han simbolizado la situación política en el Estado.

Ha sido una nueva prueba de la nula voluntad de entendimiento entre las fuerzas políticas, empeñadas en derruir la política como espacio de diálogo entre diferentes.

Vivimos un año electoral sin elecciones.

No hay un horizonte de entendimiento para retos trascendentales como la transición energética, el impulso a la industria, el envejecimiento de la población, la gestión de los fondos europeos o el acuerdo presupuestario.

El fuego, además de la crispación, ha alimentado la pulsión recentralizadora. Hay quien ha utilizado los incendios para tratar de avivar la más antigua concepción jacobina del poder central y absoluto.

La forma de responder desde Euskadi a esta realidad indeseada es mantener abiertos los cauces del entendimiento y la colaboración. Es invertir en el diálogo evitando que germine la semilla de la polarización y el populismo. Y es perseverar en la Agenda vasca, preservando la credibilidad de la acción institucional.

Prueba de ello es la Agenda política bilateral que mantenemos abierta con el Gobierno Español. Resumo brevemente sus contenidos:

- Competencias pendientes para culminar el Estatuto de Gernika,
- Propuesta de corresponsabilidad en materia de migración,
- Participación directa en la gestión y redistribución de los Fondos europeos,
- Plan de inversiones en la red eléctrica y descarbonización de la industria,
- Encomienda de gestión para avanzar en las obras de la Y vasca,

- Gestión de suelo público estatal para la construcción de vivienda,
- Propuesta de plazas MIR para paliar el déficit de profesionales médicos,
- Colaboración para garantizar la actividad y arraigo empresarial,
- Oficialidad del euskera en Europa, o
- Impulso a la Macrorregión Atlántica.

Nuestro planteamiento es proactivo y constructivo.

Desde el primer momento estamos realizando propuestas encauzadas desde la cooperación institucional y abiertas a la colaboración con los agentes sociales y económicos.

Más allá de la agenda bilateral, me detengo en el apartado del Autogobierno que representa el futuro de Euskadi.

Recuerdo lo recogido en nuestro Programa de Gobierno:

“El Autogobierno es sinónimo de mayor bienestar para el conjunto de la ciudadanía. Su defensa, y la reclamación de las competencias pendientes, constituyen pilares fundamentales para la actualización del Pacto estatutario”.

El 25 de octubre de 1979 se aprobó el Estatuto de Gernika.

Fue resultado de un Pacto interno y un pacto con el Estado. Un Pacto de altura política, refrendado con el voto de la sociedad vasca.

El Pacto obliga y contamos con los espacios necesarios para garantizar su cumplimiento íntegro porque todas las competencias pendientes pertenecen, “por Ley y referéndum”, al Pueblo vasco.

Pedro Sanchez Espainiako presidenteari 2024ko uztailen Ajuria Enean esan nion bezala, Estatuak 46 urtez luzatutako zorra dauka herri honekin. Eta berak aukera historikoa dauka zor hori behingoz kitatzeko.

Falta diren eskumenak eskualdatzeko hitzartutako data gainean dago. Paper guztiak, urriaren hasieran Madrilgo mahai gainean egongo dira.

Guk ez dugu hutsik egin eta ez dugu hutsik egingo. Eta Espainiako Gobernuak badaki udazken honetan egiten duenaren arabera izango dela urte amaierako ebaluazioa.

Denborak estutzen du Madril, baina presak ezin du lanak ondo ez egiteko aitzakia izan. Ez dugu edozer gauza sinatuko; ez dugu “matxuratutako merkantziarik” onartuko.

Gernikako Estatutua goi mailako testu politikoa da, autogobernuaren bitartez gure nazioa eraikitzen eta garatzen lagundu duena. Eta ez dugu onartuko Estatutua edukiz husterik edo debaluatzerik.

En primer término, por lo tanto, debemos hacer efectivo el compromiso asumido por el Gobierno Vasco y el Gobierno Español para negociar y acordar todas las competencias pendientes.

Con el objetivo de facilitar el acuerdo, hemos estructurado cuatro bloques de negociación:

- Seguridad social y Políticas de empleo,
- Infraestructuras,
- Seguridad pública, y
- Hacienda, finanzas y empresa.

Ayer logramos un avance muy relevante en el primer bloque que interpreto y valoro como un gesto político en la buena dirección. Aún resta cumplir el calendario acordado en su integridad.

El cumplimiento de lo acordado es el mejor ingrediente para asentar la confianza política y para el progreso de Euskadi.

Lehen urratsa beraz, adostutakoa betetzea da.

Horrekin batera, urrats berriak ematea.

Garaiak eskatzen duen Itun berriaren elkarrizketak ezin dira sine die luzatu. Mundua azkar doa, behar handiak ditugu eta ezin dugu geldi geratu.

Bizi dugun egoera politikoak aukera bat ematen digu eta aukera hori baliatzea dagokigu.

Kurtso politiko honetan aurrerapauso nabarmenak ikusi behar ditugu eta etorkizuneko Autogobernuaren oinarri berriak adostu behar ditugu.

Duela lau hamarkada eta erdi bezala, orain ere, goi mailako testu politiko bat adosteko gaitasuna erakutsi behar dugu. Berriro diot, aukera bat dugu eta aukera hori baliatzea dagokigu.

Debemos avanzar y hacerlo ya.

Desde 1979 Euskadi ha cambiado: formamos parte de Europa, hemos dejado atrás la lacra del terrorismo, afrontamos nuevas demandas sociales, vivimos condicionados por los retos globales.

Estas décadas se han consolidado nuevos derechos sociales: la igualdad, la garantía de ingresos o la dependencia; y han cobrado fuerza desafíos como el cambio climático, el reto demográfico o la migración.

El Programa de Gobierno pactado por el Partido Nacionalista Vasco y el Partido Socialista de Euskadi compromete, y cito textualmente: "alcanzar un nuevo Pacto estatutario".

Este nuevo Pacto debe identificar y corregir las competencias estatutarias que se han visto alteradas a través de mecanismos que han afectado o mutado su contenido. Esto significa dotarnos de un marco de bilateralidad efectiva y un sistema de garantías imparcial.

El Pacto estatutario debe impulsar el desarrollo de capacidades políticas que estaban apuntadas en el Estatuto de Gernika o plantear nuevas competencias adecuadas a la realidad actual que nos ayuden a encarar con mayores garantías nuestro futuro.

Capacidades que nos permitan desarrollar políticas propias para fortalecer los valores de nuestro Pueblo, avanzar en la proyección exterior de Euskadi, responder al reto migratorio, participar directamente en las instituciones de la Unión Europea, y seguir mejorando el nivel de prosperidad, bienestar y cohesión de la sociedad vasca.

En la ronda con los partidos políticos he podido constatar el interés común por debatir y avanzar hacia un nuevo Pacto político que actualice y mejore nuestro Autogobierno.

Ahora es el momento de los partidos políticos.

Es momento de hablar, negociar y tratar de llegar a un acuerdo. Con seriedad y discreción. Sin prisas, pero sin pausa.

Mi compromiso, y así lo he transmitido en las reuniones mantenidas, es favorecer el avance en este ámbito, trabajar un suelo común y, en su caso, facilitar los consensos. Es lo que trataré de hacer.

Pero este proceso no puede dilatarse indefinidamente.

La razón es muy sencilla: estamos contemplando una tendencia autoritaria en nuestro entorno, y también una pulsión recentralizadora y reaccionaria en no pocos discursos y manifestaciones.

Como Lehendakari, siento la obligación de advertir en esta Cámara sobre una circunstancia determinante para nuestro futuro político:

Pueden llegar tiempos muy complicados para Euskadi. Un escenario de cuestionamiento de nuestro Autogobierno, identidad e instituciones.

Un tiempo oscuro para nuestro desarrollo como País que puede afectar a la realidad más cercana, a nuestra vida diaria y bienestar.

Nuestra responsabilidad hoy, tal y como hemos hecho a lo largo de la historia, es aprovechar las oportunidades, porque hay trenes que pueden no volver a pasar en mucho tiempo.

La estabilidad en Euskadi y el momento político en el Estado son hoy factores de oportunidad.

No hay tiempo que perder. Es el momento de avanzar en el nuevo Pacto Estatutario porque estamos ante el curso político clave.

He citado la altura política que permitió alumbrar el Estatuto de Gernika de 1979.

El nuevo Pacto estatutario exige esa misma altura y disposición. Exige abordarlo con la máxima responsabilidad y seriedad. También con generosidad.

Sin jugar. Sin especular con nuestro futuro político. Y, sobre todo, sin fallar al Pueblo vasco.

En junio volveré a reunirme con las fuerzas políticas y será el momento de analizar el recorrido realizado, evaluarlo, y establecer los pasos a seguir para cumplir con el compromiso de nuestro Programa de Gobierno, que dice: “ampliar y mejorar el autogobierno de Euskadi”.

Orain alderdien garaia da; hitz egin, negoziatu eta adosteko garaia. Soseguz, baina denborarik galdu gabe. Hori bai, bidea ezin da mugarik gabe luzatu.

Arrazoia oso sinplea da: Euskadirentzat oso garai zailak eta ilunak iritsi daitezke. Gure autogobernua, nortasuna eta erakundeak zalantzan jar daitezke. Eta horrek gure eguneroko bizitzan eta ongizatean eragin nabarmena izan lezake.

Gure erantzukizuna da, gaur, historian zehar egin dugun bezala, gure nazioaren eraikitzearen alde, aukerak aprobetxatzea.

Horregatik, epeak jarri behar ditugu.

Ekainean, indar politikoekin batzartuko naiz berriro, egindako ibilbidea aztertu, ebaluatu eta gure Gobernu Programaren konpromisoa betetzeko urratsak emateko: “Euskadiren autogobernua zabaltzea eta hobetzea”.

Autogobernuaren etorkizuna gai serioegia da instrumentalizatzeko eta jolasean ibiltzeko. Gernikako Estatutua idatzi eta adostu zutenen maila ematen saiatu behar gara.

Goi mailako testu horrek goi mailako jarrera eskatzen du.

Zintzotasunez jokatzeko dagokigu.

Autogobernu berriak eskuzabaltasuna eta arriskuak hartzea eskatzen digu, nahiz eta batzuen edo besteen etxeak pixka bat harrotu.

Hori da euskal gizarteari eman genion hitza. Eta hori da dugun betebeharra.

Bukatzerara noa.

Euskadiren gaurko eta biharko arazo eta erronkez aritu naiz gaurkoan. Baita horiei aurre egiteko azken urte honetan proposatutako erantzunez ere.

Ikasturtean zehar martxan jarriko ditugun egitasmoak laburtzen saiatu naiz.

Ondo dakit, eta onartzen dut, Gobernu bezala ez dugula dena ondo egin, ezta gutxiago ere. Nahiz eta saiatu garen, ez dugu denean asmatu.

Duela urtebete, aurreikuspenak egin genituenean, hainbat esparrutan gehiago aurreratzea espero genuen. Eta sentitzen dut lortu ez izana.

Bi adibide:

- Lehena. Desburokratizazioan gehiago aurreratzea.

Herritar bezala gehiegizko burokraziak ito egiten gaitu. Eta erakundeen edo enpresen alorrean ere gauza bera gertatzen da.

Lehen egunetik konpromisoa hartu genuen emaitzak ikusteko eta oraindik ez ditugu lortu espero genituenak.

- Bigarrena. Herritarren arteko ezberdintasunak gutxitzea.

Arlo honetan aurrera goaz, baina aurrerago egon behar genuen. Herri bat ez baita justua izango herritarren arteko arrakalak baldin badira.

Dena ondo egitea ezinezkoa da, denean asmatzea ez da posible. Baina hori ez da aitzakia.

Jaurlaritzaren erantzukizuna oso handia da. Herritarren bizimoduan zuzeneko eragina dute gure erabakiek.

Horrekin batera, oposizio kritiko eta arduratsu bat izatea beti da ona, ditugun erronkei erantzuna hobeto ematen laguntzen digulako.

Eta denok asmatzen dugun neurrian, irabazleak euskal herritarrak izango dira. Euskal gizartea, bere osotasunean.

Horregatik elkarlanerako deia luzatzen dut. Talde-lana ezinbestekoa da aurrean ditugun erronka erraldoien aurrean.

Ziurgabetasuna eta eraldaketak nagusi ditugun honetan, pertsona guztien ongizatea bermatzea dugu helburu. Ez bakarrik ongizate materiala.

Kontratu sozial berria behar dugu, dimentsio emozionalaren eta komunitarioaren begirada txertatuko duena.

“Gure garaia ziurgabetasunez beteta dago. Baina munduko leku gutxi daude Euskadi bezain ondo kokatuta horietara egokitzeko”. Ez dira nire hitzak, Minouche Shafik-ek esan zuen.

Horrela ikusten gaitu egungo munduko pentsalari garrantzitsuenetako batek.

Sinetsi dezagun, beraz, gure gaitasunetan, gure aukeretan.

Kontratu sozial berriak, autogobernu indarberritua eskatzen du. Gure nazioak behar dituen gaitasun politikoak osatzeko eta zabaltzeko.

Nekez egin ahal izango diegu aurre 2025garren urteko erronkei, XXgarren mendeko paradigma eta tresnekin.

Eta, legebiltzarkideok, zeregin hau betetzeko ardura guri dagokigu, belaunaldi honi.

Urratsak emateko eta arriskuak hartzeko garaia da. Denoi dagokigu.

Hauxe da, azken finean, euskal agenda: herri honen balioak eskuan, herri hau etorkizunera eramatea. Gure etorkizuna irabaztea.

Seguru naiz lortuko dugula.

Itsasoa ez dago bare. Olatu eta korronteak izugarriak dira. Baina ez dugu amore emango.

Hau da egokitu zaigun aroa. Eta aro honetan ere nabigatzen asmatuko dugu.

Eskerrik asko!